

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Santurtziko Udala****Santurtziko Udaleko Ogasun eta Ekonomia Sustapen arloko diru-laguntzak emateko ordenantza, Santurtziko enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta turismoa sustatzeko.**

2017ko ekainaren 5eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (106. zenbakia) argitaratu zen Santurtziko enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta turismoa sustatzeko Santurtziko Udaleko Ogasun eta Ekonomia Sustapen arloko diru-laguntzak emateko ordenantzaren behin-behineko onespena, aldeztu aurretik Osoko Bilkurak 2017ko maiatzaren 25ean egindako 2017/5 ohiko saioan onartuta. Jendaurrean jartzeko epean ez denez inolako erreklamaziorik aurkeztu, aipatu erabakia behin betikoa izango da apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 85/7 legearen 49 c) artikuluaekin bat etorritik, eta indarrean sartuko da testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik 15 egunera.

**SANTURTZIKO UDALEKO OGASUN ETA EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA, SANTURTZIKO ENPRESEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO ETA TURISMOA SUSTATZEKO****1. Xedea**

Ordenantza honek xede bikoitza du; batetik, herriko enpresa-ehunari laguntza ekonomikoa ematea, udalerriko enpresa-sarea estrategikotzat jotzen diren sektoreetan hobetu dadin eta bestetik, Santurtzik eskaintzen dituen turismo-jarduerak sustatzea. Hori guztiori Udal Osoko Bilkurak 2017ko maiatzaren 25ean egin zuen ohiko batzarrean onartutako Diru Laguntzen Plan Estrategikoaren esparruan.

**2. Emateko prozedura**

Ordenantza honetan araututako diru-laguntzak bereziak dira eta beraz, zuzenean ematea baimenduko da azaroaren 17ko Diru Laguntzen 2003/38 Lege Orokorraren 22.2.c artikuluan xedatutakoa ezarritik, lege horren berorren 28. artikulua eta 3. atalean ezarritakoarekin lotuta, herri-, gizarte- eta giza-arloko arazoak tarteko.

**3. Onuradunak**

Enpresen lehiakortasuna hobetu edo Santurtzi guneko turistiko gisa sustatzen duen edozein pertsona fisiko edo legez eraturako pertsona juridiko, baldin eta 1. eranskinetako oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu.

**4. Betebeharrak**

Edonola ere, onuradunek azaroaren 17ko Diru Laguntzen 2003/38 lege Orokorraren 14. artikulua a), b), c) eta d) ataletan eta horrekin bat datozen gainerako artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

**5. Finantziak**

2017an guztira 60.000,00 euroko diru-laguntza emango da eta Udalaren Aurrekontu Nagusietan helburu horretarako dauden aurrekontuen aplikazioen bidez ordainduko da.

**6. Diru-laguntza ekonomikoaren ordainketa**

Diru-laguntza ekonomikoak ordenantza honen 1. eranskinetan ezarritakoari jarraituz ordainduko dira.

**7. Arau hausteak**

Jasotako kopurua itzuli beharko da, bai eta diru-laguntzak ordaindu zirenetik dirua itzultzea erabakitzen den egunera arteko berandutza-interesa ere, azaroaren 17ko Diru Laguntzen 2003/38 Lege Orokorraren 37.1 artikulua a) atalean azaltzen diren kasuetan.

Itzulketa bera azaroaren 17ko Diru Laguntzen 2003/38 Lege orokorraren 42. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingo da.

**8. Araudi juridiko ezargarria**

Diru-laguntza ekonomikoak honako ordenantza honetan ezarritako arauak arautuko dituzte, bai eta azaroaren 17ko Diru Laguntzen 2003/38 Lege Orokorrean xedatutakoak ere, publizitate eta konkurrentzia printzipioei dagokienean izan ezik. Horiez guztiez gain, zuzenbide administratiboko gainerako arau ezargarrietan adierazitakoak ere arautuko dituzte.

**AZKEN XEDAPENA**

Ogasun eta Ekonomia Sustapeneko arloak enpresen lehiakortasuna hobetu edo Santurtzi gune turistiko gisa sustatuko duen edozein pertsona fisiko zein legez eraturako pertsona juridikori emateko diru-laguntzen ordenantza 2017ko maiatzaren 25ean onartu zen behin-behinean. Jendaurrean erakusgai egon den epean ez denez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onartutzat jo da eta indarrean sartuko da testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean behin betiko argitaratu eta 15 egunera.



## 1. ERANSKINA

**SANTURTZIKO UDALEKO EKONOMIA SUSTAPEN ARLOAREN  
DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK SANTURTZIKO ENPRESEN  
LEHIAKORTASUNA HOBETU ETA HERRIKO TURISMOA SUSTATZEKO****1. Atarikoa**

Santurtziko Udaleko Ogasun eta Ekonomia Sustapen arloa garrantzi handiko lana egiten ari da herriko enpresen ehuna sustatu eta zabaltzeko helburuz, Enplegu eta Tokiko Garapena, Merkataritza eta Turismo zerbitzuen bidez.

Hori dela eta, Santurtzin diharduten enpresa txiki eta ertainei udalak ematen dizkien politika eta zerbitzuen esparruan haratago joan nahi dugu, eta horregatik diru-laguntzen oinarri arautzaileak abian jartzea erabaki da, enpresen lehiakortasuna eta berrikuntza hobetzeko helburuz, herrian enplegua sortu eta jarduera ekonomikoak dinamizatzeko aldera.

**2. Araudia**

Hurrengo hauetan xedatutakoari jarraituz:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 2003/38 Lege orokorra (BOE 2003ko azaroaren 18).
- Ekainaren 21eko 2006/887 Errege Dekretua, zeinen bidez Diru Laguntzen Lege Orokorren araudia onartu zen.

**3. Helburua**

Oinarri arautzaile hauen helburua honakoa da: enpresa-ehunari laguntza ekonomikoa ematea, sektore estrategikoetan udalerriko enpresa sarearen lehiakortasuna hobetu eta turismo-jardueren garapena sustatze aldera.

Ondorioz, honako oinarrien xedea itzuli beharrik gabeko diru-laguntza ematea da hurrengo jarduketa-lerroetarako:

- 1. lerroa: Enpresen lehiakortasuna hobetzeko diru-laguntzak, zertarako-eta, merkataritza, zerbitzu, turismo eta ostalaritza sektoreetako Santurtziko enpresei modernizatu, berrizatu, zaharberritu eta hobetzeko inbertsioak egiten laguntzeko.
- 2. lerroa: Turismoa sustatzeko diru-laguntzak, turismo produktuak edota jarduerak egiteko.

**4. Onuradunak**

Edozein pertsona fisikok edo legez osatutako pertsona juridikok jaso ahal izango ditu honako oinarrietan araututako diru-laguntzak, baldin eta baldintza orokorrak eta honako deialdi honetan araututa dauden diru-laguntzak jasotzeko baldintza zehatzak betetzen badituzte.

**1. lerroa. — Enpresen lehiakortasuna hobetzeko diru-laguntzak**

Lerro honi atxiki ahal izango zaizkio merkataritza-, zerbitzu-, turismo- eta ostalari-tza-sektorean lanean diharduten enpresak, baldin eta jarduera udalerrian gauzatzen badute.

**2. lerroa. — Turismoa sustatzeko diru-laguntzak**

Lerro honi atxiki ahal izango zaizkio Santurtzin egoitza duten enpresa turistikoak edota egoitza Santurtzin izan gabe ere, gure udalerrian jardun eta zerbitzuak bertan ematen dituzten enpresak.

Enpresa juridikotzat hartuko dira uztailearen 28ko Turismoaren 2016/13 Legean jasota dauden tipologiaren batean kokatu daitezkeen erakunde fisiko eta juridiko guztiak

Hurrengo hauek ezin izango dituzte diru-laguntzak jaso:

- Diru-laguntzen azaroaren 17ko 2003/38 Lege Orokorren 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden enpresak edo erakundeak.



— Irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeak, Herri Administrazio, herri-elkarte eta horiei lotutako edo horien menpeko erakundeak, eta zuzenbide publikoaren bidez eratu edo berorrek araututako beste edozein enpresa.

Erakunde onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte oinarriok arautzen duten diru-laguntzen proiektuan parte hartzen duten bitartean.

## 5. Ekintzak eta diruz laguntzeko moduko gastuak

Eskatzaile bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da. Eskatzaileak ezarritako laguntzen bi lerroetako bati baino ezin izango zaizkio atxiki, honako oinarri hauetan ezarritakoari jarraituz.

### 1. lerroa. — *Enpresen lehiakortasuna hobetzeko diru-laguntzak*

Lerro honen bidez, enpresa hobetu, berriztatu, modernizatu eta zaharberritzeko inbertsio-proiektuak sustatuko dira.

Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira hurrengo inbertsio hauekin lotutakoak, eta inbertsiook zuzenean egongo dira udalerrian egin edo garatuko den jarduerarekin.

- a) Enpresaren jarduerarekin lotura zuzena duten ekipo eta programa informatikoak.
- b) Enpresaren jardueran erabiliko den webgunearen diseinua.
- c) IKTak ezartzeko prozesuetarako zerbitzu informatiko profesionalen ordainsariak.
- d) Salmenta guneak, kode-irakurgailuak eta etiketak jartzeko sistemak.
- e) Enpresa-jarduera gauzatzen den lokala konpontzeko lanak: instalazioak egokitu, zaharberritu edo handitzeko helburuz egiten diren lan guztiak.
- f) Oztopo arkitektonikoak kendu eta orokorrean lokalen sarbidea hobetzeko lanak.
- g) Altzariak eta enpresa jarduera gauzatzeko ekipamendua.
- h) Jarduera nagusiarekin zuzenean lotutako tresneria
- i) Instalazio teknikoak (klimatizazioa, argiteria eta abar).
- j) Erakusleihoak zaharberritzea (kanpotik zein barrutik).
- k) Erakusleioa ikusten uzten duten pertsiana motordunak eta saltokiaren kanpoko aldeko estetika hobetuko duten errotuluak eta argiteria jartzeko gastuak.
- l) Ordainsariak profesionalek (dekoratzaileak, arkitektoak eta abar) obretan emandako zerbitzu teknikoaren truke, betiere arestian aipatutako instalazio eta jarduketekin lotura zuzena badute.

Edonola ere, helburua diren aktiboak edo laguntzeko proiektuak zuzenean egon beharko dira jarduerarekin lotuta, eta enpresa berriztatu eta modernizatzeko, eta zerbitzua komertzializatu eta emateko tekniken hobekuntzarako erabili beharko dira. Horrez gain, negozioaren lehiakortasuna hobetzea ekarriko duten teknologia berriak ezartzeak eragingo dituen gastuak ere sartuko dira.

Hirugarrenei laga gabeko elementu berrietan egindako inbertsioak izango dira, kontraprestaziodunak edo ez, eta enpresa eskatzaileak berak egin edo komertzializatu ez dituenak.

Ez dira diruz lagunduko garraio-gastuak, aseguruak, administrazio-baimenek eragindako tasak, lizentziak edo antzekoak, ez eta zerga edo tributuen ordainketa ere.

Ez da inola ere merkataritza-lokal edo garraio-elementuen erosketarik diruz lagunduko, ez eta leasing edo renting sistemaren bidez eskuratutako ekipamendua ere.

### 2. lerroa. — *Turismoa sustatzeko diru-laguntzak, udalerrian kalitatezko turismo-produktu edota zerbitzu erregularrei diruz laguntzeko*

Jorratu beharreko turismo-jarduera edota produktuak Santurtziko Turismo Sustapeneko irizpideei jarraituz landu beharko dira (itsasoarekin lotutako turismo kulturala). Horrela bada, beren-beregi norbanakoari zuzenduko zaizkie eta behar bezala planifikatu eta publizitatuko dira, bereziki Santurtzik turismorako duen garrantzia azpimarratuz.



Diru-laguntza lerro honen ondorioetarako, turismo-jarduera erregularizat hurrengo baldintzak betetzen dituen jarduera hartzen da:

- Turista eta bisitari gehien datozen aldietan kontsumitzeko programatuta dagoena; hau da, udan (uztailetik irailera), Aste Santuan, jai-zubietan eta asteburuetan.
- Modu erregularrean egiteko aukera duena: hilero zerbitzu/jarduera bat.
- Gutxieneko lagun-kopurua gorabehera egiteko aukera duena.

Honako gastu hauek izango dira diruz laguntzeko modukoak:

a) Diruz lagunduko den jardueran zuzenean lanean ari diren langileak eurak. Zerbitzua edo jarduera gauzatu diren orduak baino ez dira zenbatuko, gehienez 100 ordu jarduera edo zerbitzu bakoitzeko.

b) Publizitatea eta komunikazioa

Publizitateak eta propagandak eragindako gastuak herriko turismo-sustapenaren mesederako egingo dira. Argitaratutako materialak eta publizitate-ekimenek Santurtziren turismo-marka agertu beharko dute erakunde laguntzaile gisa. Horrez gain, #Santurtzi eta #Costa Vasca erabiliko dira erabiliko dira sustatu beharreko produktu edo zerbitzuak sare sozialetan zabaltzeko.

c) Zerbitzu profesionalak eta azpikontratazioak. Diruz lagundutako zerbitzu edo proiektuak osatzen dituzten jardueren %90 azpikontratatu dira gehienez.

## 6. Aurrekontu zuzkidura

2017rako gehienez hirurogei mila (60.000) euroko zuzkidura egon da, aurrekontuko 3-2410-480.01.00 Ekonomia Sustapena Diru-lag. kontu-sailaren kargura, 1 eta 2 lerroetarako.

Beste ekitaldi batzuetarako zuzkidura urte bakoitzari dagokion aurrekontuetan esleitzen dena izango da.

Zuzkidura horrela banatzen da:

- 1. lerroa. Sustapen laguntza enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Gehienez %80, hau da, zortzi mila euro (48.000,00) 2017rako.
- 2. lerroa. Turismoa sustatzeko diru-laguntza. Gehienez %20, hau da, hamabi mila euro (12.000,00) 2017rako.

Diru-laguntza lerro baterako gehienezko aurrekontu-esleipena erabiltzen ez bada, gelditzen den zenbatekoa beste finantziazio-lerro batera transferitu ahal izango da, aurrekontuaren kreditua oso-osorik gastatu arte.

## 7. Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa

1. lerroa. — *Enpresen lehiakortasuna hobetzeko diru-laguntzak*

Diruz laguntzeko moduko inbertsioaren %20ri dagokion diru-laguntza. Eskatzaile bakoitzak gehienez 3.000,00 euroko diru-laguntza jasoko du.

Proiektuak diruz lagunduko badira, gutxienez 1.000,00 euroko kostea izan beharko dute.

Diru-laguntza kalkulatzeko kontuan hartuko da inbertsioen erosketa-balio garbia, hau da, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta fakturatzen den zenbatekoa.

2. lerroa. — *Turismoa sustatzeko diru-laguntzak*

Gehienez 3.000,00 euroko diru-laguntza eskatzaile bakoitzeko.

Diru-laguntza lortutako puntuen arabera banatuko da.

Balorazio teknikoaren ostean lortutako puntuak guztira zehaztuko dute proiektuari emango zaion diru-laguntzaren portzentajea.

- 80 eta 100 puntu artean: eskatutako diru-laguntzaren %100, ezarritako gehienezko kopurura arte.



- 60 eta 79 puntu artean: eskatutako diru-laguntzaren %80, ezarritako gehienezko kopurura arte.
- 45 eta 59 puntu artean: eskatutako diru-laguntzaren %50, ezarritako gehienezko kopurura arte.
- 0 eta 44 puntu artean: Diru-laguntzarik ez.

Proiektuari dagokion zerbitzuak emandako balorazioari buruzko txosten teknikoak ezarriko du proiektu bakoitzari eman beharreko puntu kopurua. Txostenak nahitaez kontuan hartuko ditu honako alderdi hauek:

- a) Izango duen ondorio orokorra islatzea. Honako alderdi hauek izango ditu kontuan:
  - Itsas-arrantza kulturarekin lotutako herri turistiko gisa, Santurtzik izan dezakeen garrantziaren ondorioak.
  - Basquetourrek egindako Euskal Kostaldearen Plan Zuzentzaileak sustatzen dituen turismo-produktuei atxikitzea.
  - Santurtzin egiten diren diruz lagundutako jarduerak bisitari eta turistak erakartzeko izango duten gaitasuna.
  - Ondorio ekonomikoa izatea.
- b) Enpresa edota eragileak jarduera edota proiektuan inplikatzeko.
- c) Jardueraren maiztasuna/erregulartasuna.
- d) Berrikuntza eta kalitatea:
  - Turismo-herri gisa kokatzeko bereizgarriak edota bakarrak diren ekintzak.
  - Enpresen lehiakortasuna hobetzeko programetara atxikitako jarduerak (SICTED, Q, BBBPP IKTetan).
- e) Informazio eta komunikaziorako teknologien erabilpena diruz lagunduko diren jarduerak sustatzeko.

## 8. Diru-laguntza jasotzeko aldia

Diruz lagunduko diren jarduketak eta gastuak diru-laguntza jasoko den urteko urtarriaren 1etik abenduaren 31ra arteko tartean gauzatu edo eskuratuak izan beharko dira, biak barne.

## 9. Eskaera orriak aurkezteko tokia eta epea

Eskaera-orriak Santurtziko Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira (Murrieta etor., 6, 48980-Santurtzi). Eskaera-orria aurkezteak oinarri hauek onartzea ekarriko du ezinbestez.

Oinarriok [www.santurtzi.eus](http://www.santurtzi.eus) webgunean egongo dira eskuragarri, Santurtziko udaleko Erregistro Nagusian eta honako udal zerbitzu hauetan: Turismo Bulegoan, Behargin-tza Santurtzin eta Merkataritzarako Bulego Teknikoan.

Eskaera-orriak aurkezteko epea iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eta aurrekontu-saila agortu edo urteko irailaren 30ean amaituko da. Ez dute inola ere laguntzarik jasoko diruz laguntzeko moduko ekintzak gauzatzeko ezarritako epetik kanpo egindako jarduketak, ez eta eskaera-orriak aurkezteko epetik kanpo aurkeztutako eskabideak ere.

Eskaera-orriaren termino guztiak ez badaude behar bezala beteta, edo ez badute beharrezkoa den dokumentazioa erantsita, erakunde eskatzaileari berau zuzendu edo eskatutako agiriak aurkez ditzan eskatuko zaio, eta hamar eguneko epea izango du horiek ekartzeko. Horrela egin ezean, eskaera atzera botako da eta eskaera horren inguruko erabakia emango da beren-beregi, bai eta berau jakinarazi ere. Enpresa edo erakunde interesatuek eskaera aurkezteak oinarriak oso-osorik onartzea dakar ezinbestez.

Erabakia bi bat hilabeteren buruan emango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik zenbatzen hasita, ez bada arrazoi justifikatu bat dela-eta ezin dela epea bete. Horrela izanez gero, erabakia ahalik eta epe laburrenean hartuko da.

**10. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Diru-laguntzen eskabideak beren-beregi horretarako ezarritako eskabide ereduari jarraituz aurkeztuko dira, oinarri honekin eranskin. Eta berarekin batera hurrengo agiri hauek ere aurkeztu beharko dira.

**10.1. Erakunde eskatzaileari buruzko dokumentazioa**

- a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada: NAN/AIZ agiriaren fotokopia.
- b) Pertsona juridikoen kasuan: Zerga identifikazioaren txartelaren kopia, ahalordearen Nortasun Agiria eta ahalordetzaren kopia.
- c) Jarduera ekonomikoen zergaren altaren egiaztagiria
- d) Erantzukizuneko aitorten original bakarra sinatua: (Eskabidearen 1. eranskina).
  - Ez dagoela diru-laguntza publikoen ez itzultze-, ez zehatze-prozeduretan sartuta.
  - Ez dagoela diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta, ez eta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekuan sartuta ere. Debeku horien barne dago sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, xedatua bera Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 2005/4 Legean.
  - Ordezkatzen duen enpresak eskatutako baldintzak betetzen dituela eta ez dagoela Diru Laguntzen 2003/38 Lege Orokorren 13. artikuluan jasotzen diren egoeren eraginpean, onuradun izatea oztopatzen duten horietan alegia.
- e) Zerga betebeharrak eguneratuta dituela adierazten duten Ogasun eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren ziurtagiri eguneratuak.
- f) Hirugarrenen alta agiria, erakunde eskatzaileak eta bankuak sinatu eta zigitatua (Eskabidearen 2. eranskina).

Eskabidea egiten duen erakundeak Santurtziko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko da ofizioz.

**10.2. Diruz lagunduko den ekintzari buruzko dokumentazioa**

- a) Onuradunaren alde emandako agiri originala edo diruz lagunduko den proiektu, jarduera edo inbertsioari buruzko txostena, lerroaren arabera. (Eskabidearen 3. eranskina).
- b) Horren aurrekontu zehatza (Eskabidearen 3. eranskina)

**11. Prozedura, instrukziorako organo eskumenduna eta ebazpena**

Eskaerak sarrera erregistroan aurkeztutako hurrenkerari jarraituz ebatziko dira erabilgarri dagoen aurrekontuko saila agortu edo eskaerak aurkezteko epea amaitu arte.

Prozedura ebazteko organo eskumenduna Tokiko Gobernu Batzordea izango da, zeinek aldez aurretik balioztatu eta eskatzaileak ezarritako baldintza eta eskakizunak betetzen dituela egiaztatuta, diru-laguntza emango duen.

**12. Helegiteak**

Emakidaren ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari. Hala ere, beroren aurka berraztertze errekurtsoa ezarri ahal izango da berau eman zuen organo berberaren aurrean hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunean zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da 2 hilabeteko epean eskualde honetako administrazio auzietako epaitegian.

**13. Justifikazioa eta diru-laguntza ordaintzea**

Emandako zenbatekoaren %100 ordainduko da erakunde/enpresa onuradunak horretarako beren-beregi ezarritako justifikazio-eredua aurkeztu ondoren, oinarri hauekin eranskin. Horrekin batera hurrengo agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Zerga-betebeharrak eguneratuta dituela adierazten duten Ogasun eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren ziurtagiri eguneratuak.



- Erantzukizunezko aitorten original bakarra sinatua: (justifikazio ereduaren 1. eranskina).
- Diruz lagunduko diren jarduketan behin betiko faktura original edo erkatutako fotokopiak eta ordainagiria, hau da, transferentzia, bankuaren egiaztagiri edo ordain-laburpena, ordaindu egin den froga gisa.
- Diruz lagunduko den jardueran zuzenean ari den 2. lerroko langileen gastuen kasuan:

Diruz lagunduko den jardueran arituko diren langileen soldata eta Gizarte Segurantzaren kostuak ordaindu direlako ziurtagiria, diruz lagunduko den ekintzak dirauen bitartean, bai eta autonomoen erreziboa edota nominen fotokopia ere, kasuan kasu.

Aipatutako agiriak Santurtziko Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira diru-laguntza emango zaiola jakinarazi eta gehienez hilabeteko epean. Diruz lagundutako ekintza gauzatzeko baldin badago, justifikatzeko epea diruz lagunduko den ekintza amaitu eta hilabetekoa izango da.

#### 14. **Beste laguntza edo diru-laguntza batzuekin elkartzea**

Diru-laguntzak ez dira inola ere bateragarriak izango kontzeptu eta xede berbererako beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako diru-laguntza edo laguntzekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu.

#### 15. **Diru-laguntza aldatzea**

Diru-laguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzeak emandako diru-laguntza ere aldatzea ekarriko du, betiere berau emateko ezarritako baldintzak babesten badira.

#### 16. **Erakunde onuradunen betebeharrak**

a) Santurtziko Udalak egiaztatzeko egoki deritzen jarduketetarako prest agertzea, diruz lagundutako proiektuari buruz eskatzen zaion informazio edo dokumentazioa aurkeztuz.

b) Santurtziko Udalari diru-laguntza emateko aintzat hartutako edozein egoeraren aldaketaren berri ematea.

c) Santurtziko Udalari beharrezko deritzon adina informazio eta dokumentazio osagarria eman, honek diru-laguntzaren eskaera ulertu eta ebaluatu dezan.

d) Santurtziko Udalari jakinarazi baldin eta deialdi honen ostean, honek diruz lagunduko dituen gastu berberetarako beste erakunde publiko edo pribatu batek beste laguntza edo diru-laguntzarik eman badio. Jakinarazpena idatziz egin beharko da berorren berri izan eta hamar eguneko epean.

e) Dirua itzuli, baldin eta ez bada honako deialdi honetan ezarritakoa betetzen.

f) Jasotako diruaren inguruko ziurtagiri eta fakturak gorde, agiri elektronikoak barne, gutxienez 4 urtez diruz lagundutako jardueraren azken ziurtagiria jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita.

g) Turismo sustapeneko 2. lerroari dagozkion laguntzen kasuan, argitaratutako materialak eta publizitate-ekimeneak Santurtziren turismo-marka agertu beharko dute erakunde laguntzaile gisa. Horrez gain, #Santurtzi eta #Costa Vasca hastag-ak erabiliko dira sustatu beharreko produktu edo zerbitzuak sare sozialetan zabaltzeko.

h) Turismo-sustapeneko 2. lerroaren diru-laguntzen kasuan, enpresek bezeroen gogobetetze-mailari buruzko txosten bat aurkeztu beharko dute gutxienez, eta horietatik proposamen eta jardueretan parte hartu dutenen gogobetetze mailaren inguruko inkestentzen %20 erantsi beharko dute gutxienez.

#### 17. **Oinarriak ez betetzea, dirua itzultzea eta zehapen araudia**

Diru-laguntzaren eskatzaileari egotziko zaio enpresak edo honek kontratatutako pertsonak betebeharren bat ez betetzea, diru-laguntzaren kopurua modu proportzionalan jaitziz edo hala badagokio, jasotako zenbatekoa eta lege dagozkion interesak itzuliz.





Behean adierazitako kasuetako bat gertatuz gero, eskatzaileak jasotako diru- kopurua eta diru-laguntza jaso denetik izandako berandutze-zergari dagozkion kopuruak itzuliko ditu:

- a) Justifikatzeko betebeharrean huts egitea.
- b) Diru-laguntza jasotzea, eskatutako baldintzak betetzen ez dituela.
- c) Diruz lagundutako jardueraren xedea ez gauzatzea.
- d) Oinarri hauetan edo diru-laguntza emateari buruzko ebazpenean ezarritako beste edozein baldintza ez betetzea.

Dirua itzultzeko betebeharra Tokiko Gobernu Batzordeak hala adostuta ezarriko da, erakunde onuradunari entzun ostean.

#### 18. Ordezko araubide osagarria

Honako oinarri hauetan zehazten ez denaren gainean, honako lege hauek ezarriko dira: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 2003/38 Lege Orokorra eta horren garapenerako araudia, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 2015/39 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 2015/40 Legea, biak ala biak urriaren 1ekoak.

#### 19. Datu pertsonalen babesa

Diru-laguntza jasotzeko eskaera-orria aurkeztuz, erakunde eskatzaileak oniritzia eman eta aitortzen du deialdian eskatutako baldintzak bete eta berorren termino guztiak osorik onartzen dituela.

Horrez gain, jakinarazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenpean hartu direla, eta onartu egiten duela datuok automatizatu eta Udal honek behar bezala baimendutako fitxategietan sartzea. Horrez gain, baimena ematen du datuok bakarrik udal kudeaketarako erabiltzeko, eta beroriek beste Herri Administrazio eta Erakunde batzuei laga edo komunikatzeko Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 1999/15 Lege Organikoan agertutako kasuetan.

Interesatuek datuak ikusi, zuzendu, ezabatu eta horiei aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dituzte, Santurtziko Udalari idatziz eskatuz (Murrieta etor., 6, Santurtzi-48980).

Santurtzin, 2017ko uztailaren 20an. — Alkatea, Aintzane Urkijo Sagredo